

# BESTELAKO XEDAPENAK

## HEZKUNTZA SAILA

### 3662

*EBAZPENA, 2022ko uztailaren 12koa, Hezkuntza saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena, unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketa-bekak eta -laguntzak finantzatzeko 2021-2022 ikasturterako zenbatekoak gehitzeko gastua baimentzen duena. (2021eko uztailaren 13ko Agindua, uztailaren 23ko EHAA).*

Agindu horrek, 2. artikuluan, ezartzen du deialdiaren guztizko zenbatekoa 60.000.000 eurokoa dela, eta, behar izanez gero, handitu ahal izango dela, ebazteko dauden eta emateko proposamena duten eskaeren zenbatekoa kontuan hartuta, horiek ebatzi aurretik. Halaber, egoera horren berri Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen ebazpen bidez emango dela jasotzen da.

Aipatutako 2. artikulua arabera, Gobernu Kontseiluak 2.600.000 euroko igoera onartu zuen 2022ko maiatzaren 17an.

Emateko proposamena duten eta ebazteke dauden eskabideen zenbatekoa ikusita, beharrezkoa da deialdiaren zenbatekoa handitzea, eta 2021eko uztailaren 13ko Aginduaren 2. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

2021-2022 ikasturterako unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketa-beka eta -laguntzen deialdira bideratutako zenbateko ekonomikoaren gehikuntzaren berri ematea, 400.000,00 eurotan.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 12a.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea,  
PATXI XABIER AIZPURUA TELLERIA.